



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 26a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiatzei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte gaietarako ikuspen taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adierazpen askatasuna errespetatu dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean. Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordeak bazter utzia (17. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko nola betearaziko duen Nafarroako Gobernuak eta zer ondorio izanen dituen bitarteko profesionalentzat eta toki entitateentzat Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiak, José Luis Izco Biarge jaunak egina (18. or.).

- Galdera, jakiteko zergatik ez den erregelamendu bidez garatu Nafarroako polizien prestakuntza-araubidea, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Andelosko aztarnategia arkeologia-parke bihurtzeko beharrarekin, Román Felones Morrás jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketa nagusiei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizaziorako plan zuzendariari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2009. urterako langileen plantilla organikoa (23. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako 2009. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2008ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda (25. or.).
- Lan-taldea, generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzkoa. Barne-funtzionamendurako arauak (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategineko 56. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren 56. artikulua ezartzen duenez, zerbitzu aktiboan dauden funtzionarioen betebeharra da, besteak beste, "destinoko herrian biziitzea, bestelako baimenik ematen ez bada".

Garai batean, betebeharrak horrek zentzua bazuen ere, gaur egun erabat zaharkituta dago; izan ere, aldaketak izan dira populazioaren lurraldebanaketan, hiriguneen konfigurazioan eta lan egiten duen populazioaren garraio sistemetan eta ohituretan. Gaur egun, destinoko herrian biziitzeko betebeharrak ez du ziurtatzen funtzionarioek dituzten gainerako betebeharrak beteko dituztenik. Gainera, ohikoa da destinoko herria ez den beste batean biziitzea eta aiaptu betebeharrak behar bezala betetzea; hori dela eta, horretarako berarizko baimena behar izatea hautazkoa eta justifikaziorik gabea bilakatu da. Horri dagokionez, esan behar da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak betebeharrak hori alde batera utzi eta indargabetu egin du Estatuko Administrazio Orokorren esparruan.

Horrenbestez, bidezkoa da arau hori kentzea.

Artikulu bakarra.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 56. artikulua h) letra kenduko da.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroan nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroan nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, nekazaritzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzen duena

ZIOEN AZALPENA

Ekoizpen zentroetan eraldaketak egitea oso errotuta dago betidanik Nafarroan, eta goranzko joera duen jarduera da; izan ere, landa eremueta-ko familiek, batez ere nekazariak eta abeltzainek, beren errentak dibertsifikatzeko eta osatzeko beharra izaten dute.

Beharrezkoa da nekazaritzako ustiategietan egiten diren nekazaritzako elikagaien arloko ekoizpenak arautzea, araudi horrek ukitzen dituen enpresak zehaztea eta beharrezkoak diren baldintzak ezartzea enpresa ekoizle-eraldatzailea izan ahal izateko, hori ekoizle-eraldatzaileen eta kotsu-mitzaileen mesederako izanen baita.

Lege proposamen honek aukera emanen die ustiategi txiki eta ertainei –Nafarroako gehienak halakoak dira– beren jarduera nagusiaz gain beste jarduera osagarri bat garatu ahal izateko. Hala, abeltzaintzako edo nekazaritzako ekoizpena jar-

duera nagusitzat izateaz gain, produktu horiek eraldatu eta merkaturatzeetik eratorritako balio erantsia gehitzen zaie.

Lege honen xedea da, halaber, abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiategien diru iturrak dibertsifikatzea, halako moduz non bertan arautzen diren jarduerak ustiategien errentak handitu eta sektorea bideragarriagoa eginen duten.

Lege honek ahalbidetuko du lehen sektoreak jarduera garrantzitsua izaten jarraitzea gure erki-degoan. Halaber, ahalbidetuko du jarduera horrek landa eremuko populazioaren sektore garrantzitsuen jarduera nagusi izaten jarraitzea, eta, ondorioz, jendea herrietan geratzea eta ingurumena zaintzea.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen helburua da Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena arautzea, zehaztea eta sustatzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Legearen aplikazio-esparrua da nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpenen antolamendua.

3. artikulua. Lurralde eremua.

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatea aplikatzekoa izanen da eta aplikatuko zaie, hain zuzen, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei.

4. artikulua. Definizioak

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiei lotutako artisau-ekoizpena da:

a) Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu- en erabili eta eraldatzeko jarduera, Nafarroako Ustiategien Erregistroan erregistratutako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiek eginikoa, ustiategi horietan beretan lortutako lehengaietatik abiatuta.

b) Salmenta zuzena: merkataritzako jarduera, zinetan ez baitago ekoizle-eraldatzailearen eta kontsumitzailearen arteko bitartekaririk.

5. artikulua. Helburuak.

Hauek dira lege honen helburuak:

– Nekazaritzako egiturak hobetzea, nekazari-tzatik eta abeltzaintzatik bizi diren pertsonentzat errenta duinak eta kontsumitzaileentzat prezio bidezkoak lortzeko.

– Nekazaritzako, abeltzaintzako edota elikagai- en ustiategi edo enpresa bideragarriak eta jasan- garriak sortzea eta sustatzea.

– Ziurtatzea lehenengo sektoreko ustiategien jarraipena, landa inguruneko garapen ekonomiko- aren oinarritzko tresna baitira, eta tokiko baliabide- ei lotuago dauden sistemak mantentzea, ahalik eta pertsona gehienek iraun dezaten familia-neka- zaritzaren esparruan.

– Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien biziraupena ahalbidetuko duen balio erantsi gehi- garri bat lortzeko aukera ematea.

– Enplegua sortzea, nekazari gazteak jarduera horretan hastea eta enpleguaren egonkortasuna erraztea.

– Gure nekazariak eta abeltzainak lehiatu ahal izatea araudi hau aspalditik duten Europako beste erkidegoetakoen baldintza beretan.

– Produktu “berezituen” aukera bat sortzea, haien kalitateari, osasunagarritasunari eta onarga- rritasunari begira, gizartean gero eta gehiago baloratzen den merkatua asetzeko.

– Merkaturatze-zirkuitu laburrak eta zuzenak sustatzea, ekoizlearen eta eroslearen aprobe- xamendu zuzena ahalbidetze aldera, produktu hori- en lekualdatze-, bitartekaritza- eta merkaturatze- gastuen murrizketaren ondorioz.

6. artikulua. Beren produktuak eraldatzen dituzten nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiate- giek bete beharreko baldintzak.

– Nafarroako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan inskribaturiko ustiategi- baten titular izatea.

– Nagusiki nekazari izatea, Nafarroako Neka- zaritzako eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregis- troaren arabera, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izanda ere.

– Instalazioak irekitzeko lizentzia eta jarduera lizentzia izatea, 4/2005 Foru Legean ezarritako- ren arabera beharrezkoa bada.

– Eraldatutako produktu guztiak kasuan kasuko nekazaritzako ustiategikoak izatea.

– Ustiategiek betetzea indarrean dagoen lege- rian Nekazaritza Politika Bateratuko laguntza zuzenak jasotzen dituzten nekazari-entzat ezarri-

tako baldintzak, kudeaketari eta nekazaritzako eta ingurumen arloko baldintza egokiei dagokienez.

7. artikulua. Identifikazioa, elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea.

1. Lege honen esparruan sartzen diren artisau- en betebeharra izanen da merkaturako den ekoiz- pen guztiak bete ditzan identifikazioaren, elikagai- en segurtasunaren eta trazabilitatearen printzipioak.

2. Produktuen izaeraren eta indarrean dagoen legeriaren arabera, ontziratutako produktuak etike- tatzeko, aurkezteko eta argitaratzeko gutxienez, informazio hau eman behar da:

a) Izendapen komertziala.

b) Pertsona arduradunaren nortasuna eta hel- bidea, produktuaren jatorria, izaera, osagaiak eta, hala balitz, gehitu zaizkion eransgarriak.

c) Kalitatea era bereizgarriak, halakorik badu.

d) Produktua erabiltzeko edo kontsumitzeko gomendatutako epea, ohartarazpenak, aurreikus daitezkeen arriskuak, erregelamendu bidez ezarri- tako erabilera-debekuak eta, kasua bada, ekoiz- pen-data.

e) Fabrikazio lotea eta produktuaren kontserba- zio egokirako beharrezkoak diren jarraibideak.

3. Solte saltzen diren nekazaritzako produktuek eta elikagaiek izendapen-agiri bat eraman beharko dute berekin, eta bertan jasoko da, gutxienez, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretan zehazturikoa.

8. artikulua. Nekazaritzako produktuen eta eli- kagaien segurtasunaren printzipioa.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten neka- zaritzako elikagaien artisau-enpresak dira ekoizten eta prestatzen dituzten produktu guztien segurtasunaren arduradun, eta, ondorioz, zaindu behar dute erabili eta ekoizten dituzten produktu guztiak kaltegabeak direla. Zehazki, garatzen duten jardue- rari aplikatzekoa zaion araudian ezarritako bete- kizunak bete beharko dituzte beren produktuen ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten neka- zaritzako elikagaien artisau-enpresek izan behar- ko dituzte une bakoitzean indarrean dagoen arau- diak ezarritako autokontrol sistemak, garatzen duten jardueraren arabera.

9. artikulua. Nekazaritzako produktuen eta eli- kagaien trazabilitatea.

1. Nekazaritzako produktuen eta elikagaien tra- zabilitateari esker, horien prozesu osoa jarrai dai-

teke, ekoizpenaren, eraldaketaren, ontziratzearen eta merkaturatzearen fase guztietan, eta horrek hartzen ditu, halaber, produktuaren gordetzea, garraioa, salmenta eta edonolako eskualdatzea, doakoa edo kostu bidezkoa. Gaitasun hori zabaldu behar da osagaietara, lehengaietara, gehigarrietara eta produktu horri erantsiko edo erantsi ahal zaizkion substantzietara.

2. Trazabilitatea da autokontrol-sistemen osagaietako bat, eta, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritzako edota elikagaien enpresa guztiak behartuta daude halako sistemak ezartzera elikagai-katearen etapa guztietan, prozedura egoki, ulergarri eta ziurtagarrien bidez. Trazabilitate-prozedurek ahalbidetzen dute edozein unetan ezagutu ahal izatea, sortutako informazioaren bidez, zeintzuk diren produktu eta lehagaien hornitzaileak eta zein enpresa hornitu diren.

3. Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek kontrolerako zerbitzu ofizialen eskura jarriko dute trazabilitate-sistemari buruzko informazio guztia, bai eta sistema horrek sorturiko informazioa ere.

10. artikulua. Baimenen araubidea.

Ekoizle-eraldatzaileek hiru baimen-araubideren artean hautatu ahalko dute:

a) Salmenta zuzena: beren ekoizpena kontsumitzaileari zuzenean saltzen diotena, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategietan edota azoketan.

b) Osasun baimena: ekoizpenaren zati bat zuzenean salduko dute eta beste bat bitartekari baten bidez.

c) Osasun erregistroa: Europar Batasunean saltzeko osasun arloko baimena izanen dute.

11. artikulua. Salmenta zuzena.

Salmenta zuzena egiten duten nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

– Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko zenbait baldintza beteko dituzte.

– Higienearen printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

– Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian izanen dute.

– Ekoizpen osoa merkaturatuko dute azken kontsumitzaileari zuzenean saldua, azoketan, ekoizpen zentroaren gertuko ingurunean.

12. artikulua. Osasun baimena.

Osasun baimena duten nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

– Jarduera bermez garatzeko beharrezkoak diren ekipamenduari eta funtzionamenduari buruzko baldintzak beteko dituzte.

– Higienearen eta osasungarritasunaren printzipio orokorrak ziurtatuko dituzte eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla ere bai.

– Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian izanen dute.

– Ekoizpenaren zati handiena salmenta zuzenerako izanen dute. Gainerakoa bitartekari bakar baten bidez saldu ahal izanen dute, betiere Nafarroako Foru Komunitatean.

13. artikulua. Osasun erregistroa.

Osasun erregistroa duten nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek ezaugarri hauek izanen dituzte:

– Ekipamenduari eta funtzionamenduari buruz eskatzen diren baldintzak betetzea.

– Ziurtatzea higiearen printzipio orokorrak eta, kasua bada, ekoizten duten produktuaren berariazko irizpide mikrobiologikoak betetzen direla.

– Arrisku eta kontrol gune erabakigarrien azterketari (APPCC) buruzko sistema bat abian jartzea.

– Osasun erregistroaren marka obalatuia izatea.

– Produktuak Europar Batasunean merkaturatu ahal izatea.

14. artikulua. Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresten erregistroa.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek, beren ustiategietan sorturiko lehengaiekin egiten dituzten nekazaritzako elikagaiak merkaturatzen badituzte, salmenta zuzenaren bidez edo osasun baimenarekin, behar bezalako identifikazioa izango dute eta kasuan kasuko ekoizleen eroldan inskribatuta egonen dira, salmenta zuzenaren bidezkoak edota osasun baimena dutenak izanda ere.

Nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elikagaien artisau-enpresak, nekazari-

tzako elikagaiak merkaturatzen badituzte eta osasun erregistroa badute, Nekazaritzako Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta egonen dira eta eraldatzen duten lehengaiaren ekoizle direla esaten duen bereizgarri bat izanen dute. Bereizgarri horretan adieraziko da, halaber, nekazaritzako ustiategiaren izena.

15. artikulua. Praktika egokien gidak.

Praktika egokien gidak eginen dira nekazaritzako ustiategiekin lotura duten nekazaritzako elika-

gaien artisau-enpresek eraldatutako produktu guztietarako.

Bete beharreko Europar Batasuneko araudia:

R.852-2004, elikagaien higieneari buruzkoa.

R.853-2004, abere-produktuei aplikatzekoak diren berariazko arauari buruzkoa.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabetera hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Estatuko Gobernuarekiko zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jakina denez, Correos pentsatzen ari da biztanle gutxi eremuetan etxez etxeko posta banaketa bertan behera uztea eta, horren ordez, postontzi kontzentratuen bidez banatzea posta, 2007ko araudi batean oinarrituta. Horrek eragina izanen luke Nafarroako mendialde osoan.

2001ean izan zen banaketa modu hori bertan behera uzteko beste ahalegin bat, baina zenbait udalen jarrera eta mobilizazioaren ondorioz, eta Nafarroako Parlamentuan eta Diputatuen Kongre-

suan izandako zenbait ekimeni esker, lortu zen etxez etxeko banaketa bertan behera uzteko asmoa geldiaraztea; izan ere, neurri hori Nafarroako herritarren zati baten bizi kalitatearen, pribatutasunaren eta ongizatearen kalterako da.

Gaur egun, 2009an, gaiak gaurkotasuna du berriro. Correosek, 2007ko araudi batean oinarrituta, adierazi du ez duela posta etxez etxe banatzeko betebeharririk, etxeak isolatuta edo bide nagusietatik urrun badaude. Gure ustez, etxez-etxeko zerbitzua postontzi kontzentratuen bidez ordeztuak ondokoa dakar:

1. Legez kontrakoa izatea; izan ere, herritar horiek bide publikoen ondoan bizi dira, eta, bide horiek pistak badira ere, egokiak dira zirkulatzeko. Populazio txikiko eremuak izateak produktibitate txikia dakar Correosentzat, baina hori ez dute zertan nozitu behar herritarrek.

2. Baztertzaila izatea; izan ere, zerbitzu unibertsalak herritar guztiei eman behar zaizkie, kontuan hartu gabe non bizi diren, are gehiago beren etxebizitzagatik zergak ordaintzen badituzte eta ibiltzeko moduko bide publiko baten ondoan bizi badira.

3. Segurtasun falta. Posta pertsonala eta bortxazina da. Hartzailearen kontrolpetik kanpo dauden postontzietan uztea printzipio horren aurkakoa da.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuarekiko beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan, Nafarroan etxez etxeko posta banaketa indarrean dagoen eremuetatik kentzea galarazte aldera.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditza.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren balorazioa egiteko taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditza.

Zioen azalpena

Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarri ziren mendekotasun egoeran dauden pertsonen eskubideak eta Autonomiarako eta menpekotasuna dutenei laguntzeko sisteman sartzeko eskubidea bermatzeko gutxienezko baldintzak. Lege horren 27. artikuluan ezartzen da autonomia erkidegoek zehaztu behar dituztela mendekotasun egoera baloratuko duten organoak, eta 28. eta 29. artikuluetan, berriz, arautzen da mendekotasun egoera eta mendekotasuna duten pertsonen arretarako banakako programako prestazioak eskuratzeko eskubidea aitortzeko prozedura.

Europako Kontseiluaren (Oslo, 2000) arabera, mendekotasuna egoera bat da, zeinetan perso-

nak, gaitasun fisikoa, psikologikoa edo burukoa ez izateagatik edo hura galdu izanagatik, laguntza motaren bat behar baitute eguneroko jarduerak egiteko. Gizarte-integrazioaren faltak eta elkartasunezko harremanenak, ingurune irisgarriak edota eguneroko bizitza egiteko baliabide ekonomiko egokiak ez izateak ere mendekotasuna sortu edo larritu dezake.

Horrenbestez, mendekotasunaren definizioa bat dator mendekotasunaren ikuspegi biopsikosozial batekin, zeinak kontuan hartzen baititu pertsonen bizitzaren hiru alderdi nagusiak –alderdi biologikoa, psikologikoa eta soziala–, eta, ahal den neurrian, saihesten baitu babes-sistematik kanpo uztea mendekotasun egoeran dauden pertsonak. Osasun fisikoaren eta buruko osasunaren arteko dikotomia gainditu egin da gaixotzearen osagarri hirukoitz hori, osagai biopsikosoziala alegia, aitortuta; izan ere, bi alderdi horien arteko mugak desegin egin dira gero eta zehaztasun handiagoz ezagutzearan jokabide deo psikearen eta gorputzaren elkarrekiko mendekotasuna. Hori dela eta, kontuan hartu behar da osagai psikologikoen ingurumen-baldintzekin eta baldintza biologikoen dute etengabeko elkarreagin, zeinaren azken ondorioa baita pertsonen osasun-egoera, ongizate edo bizi kalitatearen egoera jakin bat, familia-eta gizarte-ingurune jakin batean gertatzen dena.

Horretarako, beharrezkoa da talde diziplina anitzeko bat osatzea, ezagutza tekniko ugari dituenena. Halaber, beharrezkoak dira egiazaturiko esku-hartze ereduak eta esperientzia eta baliabide nahikoak, bermearekin aurre egin ahal izateko autonomia pertsonalaren, mendekotasunaren balorazioaren eta banakako arretaren erronkei.

Ikuspegi profesional eta diziplina anitzekotik, ikusten da beharrezkoa dela mendekotasuna aztertzea pertsonen gaitasun funtzionalaren azterketatik eta baloraziotik abiatuta. Finean, pertsonen ebaluazioa aldatzea eta ez abiatzea falta zaien horretatik (mendekotasuna dute X arrazoiengatik), baizik eta geratzen zaienetik (X gaitasun funtzionalak), laguntze aldera pertsona horien autonomia pertsonala hobetu dadin eta bere kasa bizitzeko aukera ahalik eta gehien izan dezaten.

Mendekotasunaren definizioa itzuliz, gogora ekarri behar dugu definizio horretan aipatzen dela autonomia fisikoaren, burukoaren edo sentsoriala-

ren galera; hortaz, ezgaitasun iraunkor guztiak hartzen dira kontuan.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateak, gizarte zerbitzuen alorrean duen eskumen osoa baliatuta, onetsi zuen Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko herritarren gizarte ongizatea lortzeko xedearekin.

Lege hori garatzeko onetsi zen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokoren Zorroa ezarri zuena. Horren bidez zehaztu zen gizarte zerbitzuen sistema publikoak Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan emanen dituen prestazioak.

Zorro horretan ezarritako prestazioak –mozio honen xedearen esparrukoak– lortzeko, baldintza gisa ezartzen da mendekotasun egoeran dagoen pertsonari egokitutako Banakakoaren Arreta Programa prestatzea.

Azkenik, eta aurrekoaren osagarri gisa, Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 19ko 6/2008 Foru Dekretua onetsi zuen, zeinaren bidez mendekotasuna baloratu eta aitortzeko eta Mendekotasuna duten pertsonendako Banakakoaren Arreta Programa prestatzeko prozedurak arautzen dituena.

Arau horren 3. artikulua balorazioari buruzkoa da eta bertan ezartzen denez, Nafarroako Mendekotasun Agentziako Balorazio Lantalde Teknikoak baloratuko du mendekotasuna. Osasun eta gizarte arloetako langileek osatuko dute lantalde hori.

Nafarroan, parlamentu-talde honek jaso ahal izan duen informazioaren arabera –baliteke erabat zuzena ez izatea–, ondoko hauek dira Balorazio Lantalde Teknikoa osatzen dutenak: atalburu bat (medikua), taldearen koordinatzailea dena eta balorazio teknikorik egiten ez duena, 9 okupazioterapeuta, OLT/EDU bat, fisioterapeuta bat, gizarte langile bat eta psikologo bat, 3tik 18 urtera bitarteko herritarren balorazioa egiten duena. Arreta Goiztiarrerako Taldeak 0tik 3 urtera bitarteko haurren mendekotasunaren balorazioak egiten dituzte.

Deskribaturiko egoerak zenbait galdera iradokitzen dizkigu, hausnarketa kolektiboa egiteko balio dezaketenak. Hona hemen batzuk:

1.- Nola liteke adimen-atzerapen, buruko gaixotasuna edo hondatze kognitiboa duen pertsona heldu baten balorazioa ez egitea psikologian eta/edo psikiatrian adituak diren profsionalek ez egitea?

2.- Nola liteke ez egitea balorazio eta esku-hartze lanbide anitzekoa, balorazio integrala eta Banakakoaren Arreta Programa egin behar direne-

an, eta profesional horiek beharrezkoak direnean gizarte zerbitzu orokorren zorroan jasotako prestazioak egituratzeko?

3.- Nola liteke talde hori osatzen duten profesionalak funtzionarioak ez izatea, langile kontratadunak baizik, esperientzia handirik gabekoak, haietako asko beren lehen enplegua dutenak, inguruneari eta irisgarritasunari buruzko txosten bat eta mendekotasun mailari buruzko irizpen medikoa egiteko?

4.- Nola liteke mendekotasuna baloratu duen talde bera izatea irizpen horiek aurkezturiko erreklamazioak ebazteko ardura duena?

Horrenbestez, Nafarroako Alderdi Sozialistak nahi du bermatzea baloratuko direla, zailtasun fisikoak ez ezik, adimenari eta burujabetza pertsonalari buruzkoak, jolkamoldearen alorreak, gizarte-ingurunearen ulermenari buruzkoak eta beste batzuk ere, halako zailtasunek eguneroko bizitzako jarduera oinarrizkoenak egitea eragozten baitiete mendekotasuna duten pertsonari.

Gure ustez, baloratzekoan pertsona batek duen gaitasuna deskribaturiko jarduerak eta atazak bere kabuz eta modu egokian egiteko, kontuan hartu behar dira bai gaitasun fisikoa bai buruko gaitasuna eta/edo ekimenezkoa.

Halaber, garrantzitsua iruditzen zaigu pertsona batek bere jarduerak egiteko laguntzarik behar duen baloratzekoan, kontuan hartzea, lagutza fisikoaz gain, “laguntza berezi” bat, zeina baita pertsona horrek behar izan dezakeena, jarduerak egiteko laguntza ematea eragozten duten portaera nahastean dituenen.

Gure ustez, nork bere burua zaintzeko jardueretan ziurtatu egin behar da ulertzeko eta jarduera horiek egiteko beharra azaltzeko gaitasunaren balorazioa; berriz, mugikortasunarekin zerikusia duten jardueretan, joan-etorriak baloratzekoan, kontuan hartu behar dira orientatzeko gaitasunarekin eta arriskuak saihesteko gaitasunarekin zerikusia duten alderdiak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. a) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du askotariko alorretako profesional taldeak sortu eta edo finka ditzan. Talde horik parte hartuko dute mendekotasunaren balorazio guztietan, bai eta Banakakoaren Arreta Programaren planifikazioan, prestaketan eta ebaluazioan, persona eskatzailearen osasuna eta

alderdi psikiko, sozial eta funtzionalak baloratzeko aldera.

b) Banakakoaren Arreta Programaren ardatza pertsona izan behar da, hau da, pertsoneri arreta ematea eta haien beharrezkoen asetzeko kontuan hartuta pertsona horrek nola hautematen dituen. Banakakoaren Arreta Programan, familia-testuinguruak, familiak garrantzia berezia izan behar du esku-hartze psikologikoari dagokionez.

c) Ez dezagun ahaztu familiaren esparrua, gaur egun, ez dela kontuan hartzen eta ez zaiola ordezkartzarik ez arretarik ematen, bere subjektibotasunetik hartuta. Horrenbestez, Banakakoaren Arreta Programa era diziplinartekoan egin behar da, erabiltzailearen eta/edo bere familiaren parte-hartzearekin; halaber, parte hartuko du kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuko edo, pertsona hori balorazio instituzionalizatuaren xede izanez gero, zerbitzu hori ematen duen entitateko pertsona kualifikatu batek, eta horiek guztiak izanen lirarteke laguntzaren arloko edozein esku-hartzeren oinarriko osagaiak. Azkenik, Banakakoaren Arreta Programaren etengabeko berrikusketa funtsezko osagaia izan behar da; hala, beharrezkoak ebaluatu, helburuak egokitu eta, ondorioz, esku-hartze programak aldatuko dira.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du ebaluazio talde bakoitza ondoko hauek osatua egon dadin: mediku bat, psikologi bat, gizarte langile bat, okupazio-terapeuta bat, OLT/EDU bat eta fisioterapeuta bat.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du lan postu horiek egonkortu dituzan, lan eskaintza publikoaren bitartez.

4. a) Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du langile horien prestakuntza eta etengabeko eguneratzea susta dezan, lanbide anitzeko talde horrek diziplina anitzeko talde gisa funtziona dezan.

b) Horretarako, talde horiek, besteak beste, balorazio-tresnen erabilerari buruzko ezagutza eskuratu behar dute eta ezgaitasunaren, zahartzearen edo buruko osasunaren arloko ezagupenak gaurkotu beharko dituzte, bai eta baliabideei, zerbitzuei eta programei buruzkoak ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du langile horien dedikazio eskusiboa arautzen, bidezkoak diren lansari osagarriak ezarrita.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du beste Ebaluazio Talde bat sor dezan, gainerako balorazio talde arruntetatik independentea izanen dena, balizko berrikusketak eta interesdunek aurkeztutako errekurtsoak edo erreklamazioak aztertu, kalifikatu eta berriz baloratuko dituen, balorazioak egiten dituen talde berak espediente berari buruzko erreklamazioak ez ebazte aldera.

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialista del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Horren bidez, Nafarroako gobernua premiatzen da Nafarroarako osasun eskualdeak berrantola ditzan.

Nafarroako osasun eskualdeen banaketa azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legetik heldu da.

Eskualde horien antolaketa behin baino gehiagotan aldatu da hein batean, zenbait foru dekreturen bitartez.

Aldierdi sozialistan uste dugu Nafarroako osasun eskualdeen banaketa sakonki berraztertu beharra dagoela, orain dela ia 25 urte diseinatu baitzen.

Biztanleriaren irizpidea izan zen osasun eskualdeak diseinatzeko oinarrizko irizpideetako bat. Une hartan, 1985ean, Nafarroak 518.000 biztanle inguru zituen, eta une honetan, berriz, 619.000 inguru gara. Biztanleriaren hazkunde hori ez da berdin banatu Nafarroako eskualde guztietan. Eskualde batzuetan, hazkunde handia gertatu da; beste batzuetan berriz, ia ez da inolako hazkunde-rik gertatu. Biztanleriaren zahartze tasak ere ez dira berdin banatzen.

Desberdin garatu den hazkunde demografiko horrek akatsak eragin ditu, batzuetan, osasun zerbitzuaren arloan. Horrexegatik da beharrezkoa eskualdeen antolaketa modu egokian berraztertzea, berariazkoagoa eta toki batzuetako errealtate demografikoarekiko egokiagoa izan den plangintza egiteko, horrek osasun laguntza hobea, herritarren beharrekin bat datorrena, ekar dezan.

Osasun eskualdeak diseinatzeko erabili zen beste irizpideetako bat izan zen herri batzuen eta besteen arteko distantziarena. Batzuetan, populazioen asentamenduetan gertatu diren aldaketen ondorioz, herritarrek eskurago edo hurbilago daukate eskualdeen banaketaren arabera ez dagokien osasun etxe bat.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, legegintzaldi batzuetan zehar, osasun mapa aldatzeko beharra planteatu izan du, 22/1985 Foru Legean aldaketa zehatzak eginez. 2002an horretarako ahaleginak egin ziren, eta 2004an ere bai.

90eko hamarkadatik ez da inolako osasun plangintzarik egin, eta hori dela eta, osasun eskualdeak sakonki aldatzeko premia planteatzen dugu honen bidez. Gure asmoa ez da soilik gai puntual eta zehatz batzuk aztertzea, esate baterako, oinarrizko osasun laguntzako sendagile bakoitzak bere menpe dauzkan norbanakoen osasun txartelen zenbatekoa edo oinarrizko eskualde jakin batzuk aldatzeko; izan ere, osasun eskualdeak berriak egin behar direla uste dugu.

Laguntzaren kalitatea hobetzeko, zerbitzuak Nafarroako herritarrei hurbiltzeko eta, noski, ekitatearen eta efizientziaren printzipioan sakontzeko, parlamentu-talde sozialistak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honakoak egin ditzan:

1. Nafarroako Parlamentura igorri, urtebeteko epean, Nafarroako osasun eskualdeen antolaketa berri bat, bertan onets dadin.

2. Eskualdeen antolaketa berria egiteko, profesionalen sindikatuekin, elkarteekin eta elkargoekin lan egin beharko da, bai eta Nafarroako udal eta kontzejuetako ordezkariekin ere.

Iruñean, 2009ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte gaietarako ikuspen taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizarte gaietarako ikuspen taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 195, 196 eta 197. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte gaietarako ikuskapen taldeen osaera eta beste zenbait alderdi osagarri arautu ditzan.

Zioen azalpena

Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Lehen Plan Estrategikoak (2008-2012), 4.2.2 jardueran honakoa ezartzen du: "Gizarte zerbitzuen ikuskatzaile talde bat sortzea, eta talde horren ezaugarri profesionalak eta eginkizunak zehaztea." "Ezaugarri profesionalen" definizioari dagokionez, honakoa uler daiteke: haren barneko titulazioak edo mailak (erdi mailako edo/eta goi mailako unibertsitate-titulazioak) desberdintzea.

Bestalde, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko aitzinsolasean honakoa ezarri zen: baimenak eman eta gordezko ez da soilik kontuan hartuko, azpiegituraren eta zerbitzuaren baldintzei, ratioei eta langileen titulazioari eta zenbait dokumentaziori dagozkien gutxienezko baldintza batzuk betetzea, horri guztia-

ri kalitate estandarrak ere bete beharra gemituko baitzaio. Estandar horiek adierazle objektibotan oinarriturik neurtuko dira, eta bide eman beharko dute zerbitzuen kalitate maila eta, finean, erabilzaileen gogobetetzea hobetzeko."

Horren arabera, zerbitzuen kalitate maila hobetzea bideratzeko, kalitate-estandarrak bete behar dira, eta horrek eskatzen du zerbitzuetan garatzen diren bai programa orokorrak edo arlokakoak, bai banakako programak zorrotz ebaluatzea. Hala eta guztiz ere, hori ez da arau horretan horri buruz egiten den erreferentzia bakarra, ez eta berariazkoena ere. Ondoren zehaztuko ditugu foru lege horrek bere artikuluetan ezartzen dituen baldintzak:

1.- Legeko 10. artikuluko 1. idatz-zatian, foru legearen xedea definitzerakoan, honakoa ezartzen du: "Foru lege honen xede nagusia da populazioaren gizarte ongizatea lortzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, gizarte zerbitzuez baliatze eskubide unibertsala bermatuz." Bestalde, artikuluko beraren 2. idatz-zatiak honako hau dio: "Foru lege honen xedea Nafarroako Foru Komunitatean gizarte zerbitzuen sistema itxuratzea da, halako moduan non bermatuko baita zerbitzuak pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea ziurtatuko dituzten baldintza onenetan ematen direla." Zalantzarik gabe, "populazioaren gizarte ongizatearen" aipamena dela eta, programak beharko, dira "zerbitzuak baldintza onenetan" emateko; programa horiek, betiere, zorrotzak eta koherenteak izan beharko dute eta, horrenbestez, ebaluatu beharko dira. Izan ere, haiekin egin beharrekoa ez da soilik izaneren haien existentzia egiaztatzea, are gehiago autonomia, duintasuna ea bizi kalitatea ziurtatu behar izatearen baldintza aipatzen denean.

2.- 50. artikuluan gizarte zerbitzuen sistemaren printzipio arau-emaileak definitzen dira, eta g) letran, arreta pertsonalizatuari eta integralari dagokionez, honakoa dio: "gizarte zerbitzuen sistemak erantzun integrala eman beharko die behar sozialei, behar horien berri izatea ahalbidetuko duen laguntza pertsonalizatuaren bidez." Halaber, k) letran, plangintza eta ebaluazioa aipatzen dira. Horrek guztiak esan nahi du esku-hartzearen maila eta gradu guztien ebaluazio zehatza egin beharko dela, eta bertan, ezinbestez, banakakoa-

ren arreta programak sartu beharko direla. Programa horiek betiere, integralak izateko, arlo guztiguztiak hartu beharko dituzte: kognitiboa, emotiboa, mugimenduarena, afektiboa eta harremanetakoa eta gizarteratzeari dagokiona.

3.- Halaber, 6. artikuluko d) letrak honakoa aurreikusten du, gizarte zerbitzuen hartzailen eskubideei dagokienez: "Norberaren egoeraren balorazioarekin bat heldu den banakako laguntza pertsonal edo/eta familiarrerako plan bat edukitze-ko eskubidea". Horrek areago nabarmentzen du aurreko atalean esandakoa, eta hobeki zehazten du hasierako ebaluazioa zer den eta erabiltzaile guztiei egin beharko zaiela, alde batera utzita zein arreta- eta zerbitzu-gradua dagokien. Argi dago erabiltzailearen alderdi eta arlo asko goi mailako unibertsitate-titulua duten profesionalen (sendagilea, psikologoa, psikiatra...) eskuetan utzi beharko direla, eta, horrenbestez, banakakoaren arreta programa horien koherentzia eta eraginkortasuna goi mailako tituludunek ebaluatu beharko dituzte.

4.- Ildo beretik, 8. artikuluko c) eta d) letretan, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak dagokienez, honakoa ezartzen da:

c) Erabiltzaileek egoitzetako zerbitzuei buruz egiten diren aldizkako ebaluazioen emaitzak zehazten dituen txosten publiko bat, egoitzara sartu baino lehen, ezagutzeko eskubidea dute.

d) Laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, norberaren behar berariazkoen arabera, laguntza soziala, osasuneko, farmazeutikoa, hezkuntza eta kultura arloetakoa eta behar pertsonal guztiak bere baitan hartzen dituen, garapen ego-kia lortzeko.

Agindu horiei erantzuna eman ahal izateko, ezinbestekoa da bai programak, bai programa horiei buruz baimena duten zerbitzuek edo zerbitzu homologatuek eginiko ebaluazioa bera ere, ikuskatzailetza prozeduraren menpean egotea; hau da, haiek diseinatu eta ebaluatu dituztenen profil eta gaikuntza berak dituzten profesionalak ebaluatu beharko dituzte. Aurretik esan dugun bezala, zerbitzu gehienetan goi mailako tituludunaren profil akademikoa duten profesionalak daude (sendagilea, psikiatra, psikologoa eta abar); horrenbestez, Gizarte Gaietako Ikuskapen Atalaren egiturari, arrazoizkoa denaren arabera, goi mailako profil akademikoa duten profesionalak egonen dira.

Azkenik, 90. artikuluko, gizarte zerbitzuen sistema publikoari buruz ari dela, 1. idatz-zatian, honakoa dio: "Gizarte zerbitzuen sistema publikoa Nafarroako administrazio publikoek ematen dituz-

ten prestazio tekniko eta ekonomiko, plan, programa eta talde tekniko guztiek osatzen dute".

5.- 62. artikuluko 1. idatz-zatiak honela ezartzen du profesionalen esku-hartzearen nolakotasuna: "Gizarte zerbitzuen arloko esku-hartzearen izaera lanbide artekoa da, laguntza integrala ematea helburu". Lanbide arteko izaera hori islatzen da Gizarte Zerbitzuen zorroak hartzen dituen zerbitzuetan esku hartzen duten eta aurreko atalean azalduetako aldagarritasunari dagozkion taldeetan. Horrenbestez, arrazoizkoa da Ikuskapen Atala osatzen duten profesionalen taldeak aldagarritasun irizpide berak betetzea profil profesionalari dagokienez.

6.- Administrazio baimenak lortzeko gutxieneko baldintzei dagokienez, eraikuntzari, segurtasunari eta langileen titulazioei buruzko gogoeta batzuk egiteaz gainera, 71. artikuluko d) letretan honako betebeharra ezartzen da: "Txosten bat eta jarduketaren plan bat aurkezteko beharra, zehaztuz esku hartzeko araubidea, laguntza programak garatzeko modua eta horiek betetzeko metodologia eta prozedurak". Planteamendu horrek zehatz-mehatz adierazten du exekuzio-prozeduratan sartzen diren programak ebaluatzeko betebeharra. Horrek, horrenbestez, berretsi egiten ditu aurreko lerrokatetan adierazitako argudioak, ikuskapen taldeko profesionalen artean goi mailako titulazioa –edo, bestela esanda, A maila- duten langileak egoteko beharri dagokienez.

Bestalde, 73. artikuluko, 1. eta 2. idatz-zatietan, aurreko lerrokatetan adierazitakoa azpimarratzen du, emandako baimenei eusteari buruz ari dela:

73.1.- Emandako baimenei eusteko beharrezkoa izanen da uneoro betetzea 71. artikuluan aipatzen diren baldintzak eta, halaber, ematen diren zerbitzuetan gutxieneko kalitate estandarrei ere eustea.

73.2.- Gutxieneko estandar horiek erregulamenduz ezarriko dira, eta ondotik aipatzen diren alderdien gaineko adierazle kuantitatibo eta kualitatibotik oinarriturik lortuko dira: zerbitzuen egitura, giza baliabideak, emandako zerbitzuaren ebaluazio objektiboa eta erabiltzaileen gogobetetzea.

Artikulu horrek beste alderdi bat gehitzen du emandako zerbitzuaren ebaluazio objektiboari dagokienez, baina halakorik ezin da egin ez bada banakakoaren arreta programa osatzen duten programa guztien garapenaren ebaluazioa ezartzen ez bada, hain zuzen ere arestian aipaturiko baldintzetan.

7.- Azkenik, ikuskapenaren menpe dauden jardueri dagokienez, 83. artikuluko 1. idatz-zatian, honakoa dio: "Foru lege honen aplikazio esparruan dauden entitate publiko eta pribatuek betetako jarduketa guztiak egonen dira Gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuaren ikuskapenaren eta kontrolaren menpe". Horrek esan nahi du zerbitzuen jarduera "guztiak" ikuskatu beharko direla, horren barne direla, noski, programak eta banakakoaren arreta programak, beren eduki eta garapen osoarekin. Ebaluazio hori, noski, behar den presakuntza akademikoa eta gaikuntza duten langileek egin beharko dute.

Bestalde, artikuluko beraren 3. idatz-zatiak honako hau dio: "Ikuskatzaileek baimentzeko, homologatzeko eta erregistratzeko prozesu guztietan izanen dute erantzukizuna, bai eta, foru lege honen aplikazio esparruan, entitate publiko nahiz pribatuek ezarri beharreko aldizkako ebaluazio eta kalitate prozesu guztietan ere".

Azken batean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak ez du zalantzarako tarterik uzten Ikuskapen Atalak gizarte zerbitzuen arloan egin dezakeen esku-hartzearen norainokoari buruz, ez eta eginkizun horretan dihardutenen gaikuntza profesionalari buruz ere.

Gainera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak behin eta berriz parlamentu-agerraldietan nahiz prentsaurrekoetan adierazitakoa aipatu behar dugu. Agerraldi horietan, konpromisoa hatu zuen Ikuskapen Atal gaituagoa eta profesionalizatuagoa antolatzeke, eta hari behar diren bitartekoak emateko ikuskapen-funtzioa kaudimenez eta konpetentziaz betetzeko.

Gaur egun, Gizarte Gaietako Ikuskapen Atalean, gure parlamentu-taldeak duen informazioa zuzena bada, 6 teknikari daude. Horietatik 3 A mailakoak dira (zuzendaria, psikologoa eta goi mailako tituluduna) eta beste 3 B mailakoak (erizaina, gizarte langilea eta hezitzailea).

Dirudienez, etorkizun hurbilean, atal horretan B mailako 6 teknikari egonen dira, guztiak B mailakoak, eskusibitate osagarriarekin; gaur egun Gizarte Gaietako eta Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusian ikuskapen eginkizunetan dihardutenak -A mailakoak guztiak-, ordea, beste unitate edo departamentu batzuetara aldatuko dira, dirudienez, edo, gehienez ere, bertan geratuko dira "iraungi beharreko lanpostuetan", eskusibitate osagarririk gabe.

Erabaki hori teknikoki justifikatzen duten argudioak honakoak omen dira: batetik, eginkizun edo ardura bera duten funtzionarioek ordainsari berak jaso behar dituztela, egiten duten lanarengatik

edo/eta bateraezintasunarengatik, beren lansarien osagarri; bestetik, bete behar dituzten eginkizunak -ikuskapen lanak berezko dituenak- A mailako funtzionarioek nahiz B mailako funtzionarioek egin ahal dituztela. Horren adibidea da programen ebaluazioarekin gertatzen dena; halakoetan, batzuetan, ikuskapen lana soilik izaten da ikuspuntu dokumentaletik egiaztatzea programa batzuk zerbitzu jakin baten txosten teknikoaren zati bat direla, kasuko programaren eraginkortasuna edo egoitasuna egiazki eta materialki egiaztatu gabe.

Erraz demostratu daiteke, beraz, Foru Administrazioan eginkizun bera izateak ez duela esan nahi maila berari atxikia egotea edo lansari berak jasotzea. Lehenengo adibidea izan daiteke, bete-betean, A mailako funtzionarioek (bigarren hezkuntzako irakasleak) eta B mailakoek (lehen hezkuntzako irakasleak) partekatzen duten hezkuntza-eginkizuna. Izan ere, argi dago ez dituztela ordainsari berak jasotzen, eta haien ordainsariak kasuan kasu esleituta dauzkaten mailen arabera direla. Beste adibide bat, hezkuntzaren arloan hau ere, izan daiteke ikastetxeetako zuzendariak batzuetan A mailakoak direla eta beste batzuetan B mailakoak.

Bestalde, Foru Administrazioaren plantilla organikoaren egiturari erreparatuz gero, ikus daiteke plantilla hori osatzen eta eratzen duten unitate gehienetan profil akademiko eta ordainsari-maila desberdinetako pertsonak daudela, nahiz eta xede bera lortzera bideratutako eginkizun eta lanetan aritu, halako moduan non departamentuetako erregelamentuetan ez baitira bereizten batzuen eta besteen eginkizunak; izan ere soilik lanpostuan egiten duten lanaren garduarengatik bereizten dira.

Deskribatutakoa bezalako eredu batean, gutxienez ere harrigarri gertatzen da Ikuskapen Atalaren berregituratzearen muina argudio teoriko bat izatea, taldearen homogeneizazioari buruzkoa, halako moduan non soilik B mailako funtzionarioek osatuko baitute. Nolanahi ere, erabaki hori hartzen bada dena delako arrazoirengatik, alegia Ikuskapen Atalean maila bakarra duten langileek osatuta badago, ekimen hau proposatu duen parlamentu-taldeari, arrazoizkoagoa eta koherenteagoa irudituko zaio langile guztiak, kasu horretan, A mailakoak izatea.

Nolanahi ere, eratzen den ikuskapen taldeak, abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen planteamendu eta betebeharre erantzuna emateko -Ikuskapen Planari eta Kalitate Planari dagokienez-, behar adinako gaitasun profesionala duten teknikariak eduki beharko ditu, betiere ikuskapen eginkizunean ebaluatu beharko dituzten programa,

diagnosi eta profesionalen arabera, eta beren lana ahal den modurik onenean egin ahal izateko. Bestalde, lantaldean lan egiteko gaitasuna eduki beharko dute eta aktiboki hartu beharko dute parte prestakuntza plan jarraitu, koherente eta eraginkor batean. Halaber, guzti-guztiei eskusibitatea aitortu behar zaie, beren eginkizunetan independentzia izan dezaten eta uneoro lanerako moduan egon daitezten.

Hala eta guztiz ere, hain zuzen ere goi mailako tituludunak (A mailakoak) kentzea ez da zuzena, gure ikuspuntu apaletik: hasteko, prestakuntza maila handiagoa dute, eta, gainera, esperientzia luzea dute Ikuskapen Atalean; gainera, eskarmen-tua dute programak kudeatzeko, prestatzeko, diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko bestelako lan batzuetan, bai eta ezgaitasuna duten pertsonen diagnosian ere.

Betiere, bestelako antolaketa sistema bat behar da, eta hura ezartzeko garaian, aintzat hartu beharko lirateke, bidegabekeriarik ez egiteko, une hauetan dauden titulazioak eta kontuan hartu beharko lirateke une hauetan lanpostu horietan ari diren langileak.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Gaietako Departamentuko Ikuskapen taldeetan, gutxienez ere honako langileak egon daitezten: A) A mailako hiru tituludun, goi mailako prestakuntza akademikoa dutenak; gainera, honako arloetako titulazioak edukiko

dituzte: medikuntza, psikiatria, psikologia, pedagogia edo antzekoak.

A) B mailako hiru tituludun, erdi mailako prestakuntza akademikoa dutenak; gainera, honako arloetako titulazioak edukiko dituzte: gizarte lana, OLT/EDU, fisioterapia, lanerako terapia, irakasletza, logopedia edo antzekoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gutxienez ere profesionalen bitarte era ditzan. Talde horiek urteko ikuskapen planak eginen dituzte. Kontuan hartuko da talde bakoitzean gutxienez ere osasunaren, psikologiaren eta gizarte gaien arloko aditu bat egotea, gai sozial guztietan talde integratuak eta adituak edukitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren txanda-metodo eta -sistemak ezar ditzan profesionalekin, eta ikuskapen loteak antola eta bana ditzan, ausaz eta txandaka, ikuskapen-eginkizunetan objektibotasun eta independentzia handiagoak erdiesteko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du profesional horien prestakuntza eta gaurkotzea areago ditzan, betiere dauden premien arabera, lanpostuan ahal den eraginkortasun handienarekin lan egin dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du langile horien dedikazio eskusiboa arau dezan, bidezkoak diren lansari osagarriak ezarrita.

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adierazpen askatasuna errespetatu dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean.

ERAKUNDEEKIKO HARREMANETARAKO ETA GOBERNUKO ELEDUNAREN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adierazpen askatasuna errespetatu dadin, arlo guztietan errespetatu ere, EITB Nafarroan ikusi ahal izateko hitzarmena taxutu eta zehaztean"

Legebiltzarreko Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordeak

2009ko ekainaren 19an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2009ko maiatzaren 22ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko nola betearaziko duen Nafarroako Gobernuak eta zer ondorio izanen dituen bitarteko profesionalentzat eta toki entitateentzat Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiak.

JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Izco Biarge jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko nola betearaziko duen Nafarroako Gobernuak eta zer ondorio izanen dituen bitarteko profesionalentzat eta toki entitateentzat Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea dela-eta Konstituzio Auzitegiak emandako epaiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ahozko galdera:

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak konstituziokontraktasun auziak aurkeztu zituen Konstituzio Auzitegian Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriaren lehen idatz-zatia direla-eta, jakiteko xedapen hori kontraseanean dagoen Espainiar Konstituzioko 23.2 artikularekin. Konstituzio Auzitegiak, 2009ko ekainaren 1eko epaiaren bidez, konstituziokontraktasun auzi horiek onetsi eta konstituzioaren kontraktatzat eta deuseztat jo du Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriaren lehen idatz-zatiko hitz-tarteki hau: "horietan parte hartzeko eskubidea izanen dute soilik gaikuntza hori lortzeko deialdia argitaratzen denean bitarteko lanpostuan urtebete etenik gabe gutxienez edo deialdia baino lehengoko lau urteetan, etenekin, bi egin dituztenek"

Kontuan hartuta gai horrek duen garrantzia eta toki maparen berrantolamendua aztertzen ari dela, hau jakin nahi dut:

Noiz eta nola betearaziko du Nafarroako Gobernuak epai hori eta zer ondorio izanen ditu ukitutako bitarteko profesionalentzat eta toki entitateentzat?

Iruñean, 2009ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, jakiteko zergatik ez den erregelamendu bidez garatu Nafarroako polizien prestakuntza-araubidea.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez den erregelamendu bidez garatu Nafarroako polizien prestakuntza-araubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prestakuntza oso garrantzitsua da zerbitzu publikoak kalitatez eta eraginkortasunez eman ahal izateko, eta are garrantzitsuagoa da Foruzaingoaren alorrean, parlamentari honen ustez behintzat.

Urte eta erdi baino gehiago iragan da Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legea onetsi zenetik, baina Gobernuak oraindik ez du onetsi prestakuntza-araubidea garatzeko erregelamendua. Kontuan hartuta irailean prestatu behar dela heldu den urteko prestakuntza plana, hau jakin nahi dut:

Zergatik ez da erregelamendu bidez garatu Nafarroako polizien prestakuntza-araubidea?

Iruñean, 2009ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Andelosko aztarnategia arkeologia-parke bihurtzeko beharrarekin.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua bat datorren Andelosko aztarnategia arkeologia-parke bihurtzeko beharrarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak aho batez onetsi zuen mozio bat 2008ko ekainaren 24an, UPN eta CDNren aldeko botoak ere izan baitzituen; haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Andelosko aztarnategi arkeologikoari buruzko plan zuzendari bat prestatu zezan. Hona, hitzez hitz, onetsitako mozioaren lehen puntua: "1. Plan Zuzendari bat prestatu dezan

Andelosko eremu arkeologikoari buruz, leku hori Parke Arkeologiko bihurtze aldera abian jarri beharreko jarduera-multzoaren oinarritzko ildoak bilduko dituen, eremu hori bere eskualdearen garapen iraunkorrean eragina izanen duen ondare-baliabide bihurtzeko”.

Gure erkidegoko bi egunkari handienek ondoko izenburuez jaso zuten berria: "Andelos arkeologia-parke bihurtzeko eskatu du PSNk". "PSNk arkeologia-parke bat nahi du Andelosen”.

Andelosko Plan Zuzendariari buruz kasuko batzordean ekainaren 10ean izandako eztabaida-

ren ondotik, eta ikusita Nafarroako Gobernuak, agerikoa denez, ez duela bete 2008ko ekainaren 24an aho batez onetsitako mozioak agindutakoa, ondokoa jakin nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuak bere egiten al du Andelosko aztarnategia arkeologia-parke bihurtzeko beharra?

2. Behar hori bere egiten baldin badu, zer egiteko asmoa du? noiz egingen du?

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketa nagusiei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Andelosen 2005etik 2009ra bitartean eginiko jarduketa nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

PES 207

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

PSN-PSOEk 2008ko ekainean aurkeztutako mozio baten ondorioz, aho batez eskatu zitzaion Gobernuari Andelosko Plan Zuzendaria prestatzea. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak agerraldia egin zuen,

2009ko ekainaren 10ean, kasuko batzordean, plan hori aurkezteko; bertan, Corpas jauna Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizatorako plan zuzendaria eta horren garapena aipatzera mugatu zen. Plan hori 1997an egin zuen Trama Kabineteak Nafarroako Gobernuarentzat.

Plan zuzendari horren garapena, egindako ekintzak eta inbertitutako zenbatekoak ezagutze aldera, ondokoa jakin nahi dut:

1. Andelosen 2005ean egindako jarduketa nagusiak:

– Egindako ekintzak

– Kostua eta betetzeko epea

– Parte hartu zuten enpresak

– Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura

2. Andelosen 2006an egindako jarduketa nagusiak:

– Egindako ekintzak

– Kostua eta betetzeko epea

– Parte hartu zuten enpresak

– Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura.

3. Andelosen 2007an egindako jarduketa nagusiak:

– Egindako ekintzak

- Kostua eta betetzeko epea
- Parte hartu zuten enpresak
- Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura

4. Andelosen 2008ko ekainera bitarte egindako jarduketa nagusiak:

- Egindako ekintzak
- Kostua eta betetzeko epea
- Ekintzak ordaintzeko baliatu ziren kontusailak
- Parte hartu zuten enpresak
- Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura

Administrazioko zer erakunde arduratu zen obren lizitazioaz

5. Andelosen 2008ko ekainetik abendura bitarte egindako jarduketa nagusiak:

- Egindako ekintzak
- Kostua eta betetzeko epea

- Ekintzak ordaintzeko baliatu ziren kontusailak
- Parte hartu zuten enpresak
- Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura

– Administrazioko zer erakunde arduratu zen obren lizitazioaz

6. Andelosen 2009an egindako jarduketa nagusiak:

- Egin diren edo egiten ari diren ekintzak
- Kostua eta betetzeko epea
- Ekintzak ordaintzeko baliatu ziren kontusailak
- Parte hartu duten enpresak
- Kasu bakoitzean jarraituriko esleipen prozedura

– Administrazioko zer erakunde arduratu zen obren lizitazioaz

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizatorako plan zuzendariari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizatorako plan zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román

Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko:

PSN-PSOEek aurkeztutako mozio baten ondorioz, aho batez eskatu zitzaion Gobernuari Andelosko Plan Zuzendaria presta zezan. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoko kontseilariak kasuko batzordean plan hori aurkezte aldera 2008ko ekainaren 10ean eginiko agerraldian, berriz, Corpas jauna, zeinak ezin izan baitzuen aurkeztu mozioan eskatutakoa, mugatu zen Andelosko aztarnategi arkeologikoaren musealizatorako plan zuzendaria eta horren garapena aipatzera. Plan hori 1997an egin zuen Trama Kabineteak Nafarroako Gobernuarentzat.

Aipaturiko plan zuzendariaren garapena eza-gutzearren, honako hauek jakin nahi genituzke:

1.- Ados al dago Nafarroako Gobernuaren plan zuzendariaren 6. orrialdean jasotzen den proposamenarekin? Proposamen horrek honela dio: "Gure

proposamena da Andelosko aztarnategia eraldatzea arkeologiako praktiketako eskola batean edo arkeologia-ikasketen zentro batean (...) Arkeologiako praktiken zentro horrek erantzuna emanen lioke arkeologia-ikasketen eskaerari eta ondarea errespetatu eta zaintzeko betebeharrari. Arkeologiari eta ondareari buruzko jakintzak irakatsiko lirajteke, DBHtik graduondoko masterretaraino”

2.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako kudeaketa-plana? Kudeaketa-plan horren gaur egungo egoera.

3.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako interpretazio- eta aurkezpen-plana? Plan horren gaur egungo egoera.

4.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako babes- eta kontserbazio-plana? Plan horren gaur egungo egoera.

5.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako ikerketa-plana? Plan horren gaur egungo egoera.

6.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako marketing-plana? Plan horren gaur egungo egoera.

7.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.3 atalean aurreikusitako finantzaketa-plana? Plan horren gaur egungo egoera.

8.- Nafarroako Gobernuak eskueran al dauka 5.4 atalean aurreikusitako Andióngo ustiapen turistikokulturaleko plana? Plan horren gaur egungo egoera.

Iruñean, 2009ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2009. urterako langileen plantilla organikoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 22an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak eginiko plantilla organikoaren proposamena eta Mahaiaren 2008ko ekainaren 2ko eta 2009ko urtarrilaren

28ko erabakiak, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 14.1 artikularekin bat, Langileen Batzordeak txostena egin ondoren, ERABAKI DUGU:

1. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko 2009. urterako langileen plantilla organikoa onestea.

a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi bitatea	Batera- ezintasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa	Arrisku berezikoa
IDAZKARITZA NAGUSIA									
Legelari nagusia	1	A	X	55		80		35	
<i>Mahaiko eta Eledunen Batzarreko idazkaritza</i>									
Administrari burua	1	C	X			56,18	12		
Administrariak	1	C				46,18	12		
ZERBITZU JURIDIKOAK									
Legelari nagusiaren ondokoa	1	A	X	55		63		15	
Legelariak	3	A		55		63			
ZERBITZU OROKORRAK									
Administrazio teknikari burua	1	B		55		42,60			
Teknikari diplomatua (**)	1	B		55		17,60			
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	32,60			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	33			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak (*)	5	C				46,18	12		
Teknikari-ofiziala (**)	1	C		55		20,50	12		10
Gelazain nagusia									
Gelazain nagusia	1	D				46,50	15		
Gelazainak	10	D				36,50	15		
PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA									
Prentsako burua	1	A		55		63			
Itzultzaileak	5	A		55		17			
Protokoloko teknikaria	1	B			35	32,60			
Administraria (*)	2	C				46,18	12		
Transkriptoreak (*)	6	C				46,18	12		
ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		43			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	32,60			
Administraria (*)	2	C				46,18	12		
KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMI GAIETARAKO ZERBITZUA									
Kontu-hartzaitzako burua	1	B		55		42,60		15	
Administrazio kudeaketako teknikaria	2	B			35	32,60			
Administrariak	2	C				46,18	12		

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi bitatea	Batera-zintzasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Osagarri berariazkoa	Arrisku berezikoa
NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA									
Administrazio kudeaketako teknikaria	1	B			35	32,60		20	
Administraria	3	C				46,18	12		
Gelazaina	1	D				36,50	15		

(*) 1 euskarazko titulua duena

(**) Iraungitzekoa.

b) Behin-behineko langileak.

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
1	Lehendakartzako kabineteburua	BAI
1	Lehendakariaren idazkaria	BAI
1	Mahaiko kideen idazkaria	BAI
13	Parlamentu-taldeen laguntzaileak	BAI

Arartekoaren behin-behineko langileak.

Zenbatekoa	Lanpostua	Izendapen librea
1	Arloko aholkulari arduraduna	C
1	Idazkari Nagusia – Aholkulari teknikoa	C
3	Aholkulari teknikoa	C
1	Arartekoaren idazkaria	G

C = Nafarroako Arartekoaren Bulegoko behin-behineko kargua

G = Kabineteko behin-behinekoa

2. Aipaturiko erabakiekin bat, legelari nagusiari esleituriko lanpostu osagarria 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Comptos Ganberako 2009. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2008ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

«Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dutenez, urtero onetsi behar dira erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak ekainaren 4an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzailearen eta zerbitzu juridikoen aldeko txostena jaso ondotik eta Comptos Ganberako Langileen Batzordeari informatu eta entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta eskumenak baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako 2009. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla 1. eranskinean ageri da.

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioen 2008ko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda 2. eranskinean ageri da.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea behar diren ondorioak sor ditzan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 15ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2009. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubidea juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen askea.	Esklusibitatea	Lanpostua	Berariazko osagarria Maila	Berariazko osagarria
Lehendakariaren aholkularia	1		G		X				
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	5	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari - kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administrari	5	C	F				46,18	12	
Administrari	1	C	F	X			46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA									39

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2. eranskina

2008ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	6	Idazkari nagusia	Egoera aktiboan
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	6	Auditorea	Zerbitzu bereziak
Fuertes Pérez, José	A	7	Auditorea	Egoera aktiboan
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	5	Auditorea	Egoera aktiboan
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	4	Auditorea	Egoera aktiboan
Lanpostu hutsa	A		Auditorea	
Ezquerro Royo, José Luis	A	5	Legelaria	Egoera aktiboan
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	3	Legelaria	Egoera aktiboan
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Informatikako sis. goi mailako tek.	Egoera aktiboan
Erbiti Zabalza, Fermín	A	4	Kazetari-itzultzailea	Egoera aktiboan
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	6	Auditoretzako teknikari - kontu-hartzailea	Egoera aktiboan
Aurrecochea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	4	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	5	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Balduz Gil, Elvira	B	4	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	5	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Equiza Maquirrian, M ^a José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Etayo Salazar, Francisco José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	5	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	5	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	1	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	6	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo	B	3	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Martinikorena Matxain, Miren Edurne	B	2	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Moreno Orduña, Karen	B	2	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	1	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Zudaire Echávarri, A. Aurora	B	5	Auditoretzako teknikaria	Egoera aktiboan
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Zerbitzu bereziak
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	6	Administratzailea	Egoera aktiboan
Casado Redin, Cristina	C	4	Administrari	Egoera aktiboan
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	4	Administrari	Egoera aktiboan
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	6	Administraria *	Egoera aktiboan
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	5	Administraria	Egoera aktiboan
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	4	Administrari	Egoera aktiboan
Lanpostu hutsa	C		Administrari	
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	5	Mandataria	Egoera aktiboan
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	5	Mandataria	Zerbitzu bereziak

* Euskara tituluarekin

Lan-taldea, generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzkoa.

BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen "Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen barne-funtzionamendurako arauak," zeinak lan-taldeak berak onetsi baitzituen 2009ko ekainaren 24an eginiko bilkuran. Hona testua:

Lehena.- Generoko indarkeriaren biktimei laguntza integrala emateko taldeei buruzko lan-taldearen helburua da txosten bat prestatzea, non Nafarroako Foru Komunitateko gai honi buruzko araudia aztertuko baita, eta talde hauen lanaren oinarriak eta irizpideak ezarri eta haien esku utzi-ko diren oinarrizko programak zehaztuko baitira.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio boto partikularrekin batera, aurkeztuko balira, eta hark Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeko kideei helaraziko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bigarrena.- Horra lan-taldea osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

Concepción Mateo Pérez andrea (UPN)
Ordezkoa: Faustino León Chivite jauna

Ioseba Eceolaza Latorre jauna (NaBai)
Ordezkoa: Nekane Pérez Irazabal andrea

José Javier Monzón Romé jauna (SPN).
Ordezkoa: María Victoria Arraiza Zorzano andrea

Juan Cruz Alli Aranguren jauna (CDN)
Ordezkoa: Jose Andrés Burguete Torres jauna

Ana Figueras Castellano andrea (IUN-NEB)
Ordezkoa: Ion Erro Armendáriz jauna

Hirugarrena.- Lan-taldeak lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko ditu, zeina lehendakariaren ordezkari baita hura ez badago. Lan-taldeari laguntzen dion legelaria izanen da lan-taldeko idazkaria, eta, kasua bada, haren ordezkariordea dena.

Laugarrena.- Lan-taldeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, lan-taldeko kide bakoitzak bere parlamentu-taldeak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat kide dituen, horrenbeste boto edukiko ditu.

Bosgarrena.- Lan-taldeak laguntza eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak lan-taldera etor daitezkeen eskatu ahalko du, bai eta beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen ere. Orobat eskatu ahalko du beste aditu batzuk ere etor daitezkeen.

Seigarrena.- Lan-taldeak lan egiteko plana ezarriko du, eta lan-taldearen lanak behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen dituen agerraldi eta jarduerak finkatuko ditu. Plan hori Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko dio.

Zazpigarrena.- Lan-taldeak agindu zaion lana bukatu arte egingen du lan, eta, betiere, lan-taldea osatu eta hurrengo lau hilabeteetan bukatu behar du.

Iruñean, 2009ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

